

OIARTZUNGO UDALA*Iragarkia*

Udal Osoak 2008ko otsailaren 18an egindako batzarraldian, Udalbatza legez osatzen duten kideen gehiengo absolutuaren quorumarekin, ondoren argitaratzen den akordioa hartu zuen:

«Oiartzungo Arau Subsidiarioen errebisiorako dokumentuaren behin betirako onarpena.

Oiartzungo Udalak 2003ko urriaren 30eko datan, 1991an idatzitako Plangintzako Arau Subsidiarioen berridazketarako lanak kontratatzeko espedientea hasi erabaki zuen. Udal tramitazioan Aurrerapidea 05/09/29 datako udalbatzan onartu zen, hasierako onarpena 06/07/27 datan eta behin behineko 06/12/04 datako bilkuran.

Errebisiorako dokumentuak, proposamenen aldetik, Udalerriaren oinarritzko egitura orokorra mantentzea proposatzen du. Egitura hori zortzi hirigunek (Elizalde, Altzibar, Iturriotz, Ugaldetxo, Arragua, Gurutze, Ergoien eta Karrika), eta Ugaldetxo, Lintzirin eta Lanbarrengo jarduera ekonomiko zonek osatzen dute, udalerriaren ipar-mendebaldean duela gutxi garatutakoa. Erreferentzia-esparru horren barruan, Arauetan planteatutako lurralde-okupazioaren eredu orokorra hirigintza-garapen berri gehienak haranaren erdiko ardatzean zehar, Arragua, Ugaldetxo, Iturriotz eta Altzibar hiriguneen sekuentziari jarraituz, kokatzean oinarritzen da. Planteatzen diren egoitza-interbentzio adierazgarrienak honako hauek dira: Arragua 600 etxebizitza berri baino gehiago, Ugaldetxon 662 etxebizitza berri, Iturriotzen 15 etxebizitza berri eta Altzibarren 300 bat etxebizitza berri. Osagarri moduan, futbol-zelaiak Ugaldetxotik Iturriotzera lekuz aldatzea aintzat hartzen da, Altzibar eta Iturriotz artean udal-kirolgune berri bat sortuz. Eredua osatzeko, etorkizunean Hornidurazko Jarduera Berrien Parke bat sortzea proposatzen da, Arragua auzoaren goiko aldean, Ertzain Etxetik Arizabaloraino hedatzen den lurralde pribilegiatuan.

Garapen berriak Elizaldeko hirigunean kontzentratzeko aukera baztertu ondoren, zeren azken honek ez baitu aukera garbirik eskaintzen Hegoaldetik bide-deskongestiorako ingurubide bat antolatzeko eta topografia aldetik zailtasunak baititu, dokumentuak eredu hau defendatzen du ulertzen duelako onartutako hirigintza-aukera hobeagoa dela duela gutxi Erreterriak bi udalerriak mugakide diren inguruan, Agustinetatik Zamalbiderako mendilerroan, hirigintza-hazkunderako hartu duen lurzoru-okupazio estentsioko eredu Oiartzungo udalerriko lurralderantz lekualdatzea baino.

Zortzi urteetako garapen-eszenatokia, eskala orokorreko eragiketa garrantzitsuenak honako hauek dira: Elizalden kultur etxea eraikitzea, eta Learreko goialdeko bideak eta saihesbidea berrantolatzea; Ugaldetxoko hegoaldeko saihesbidea, Renferen eta Euskotrenen Oiartzungo geltoki berriak egitea, eta, Lintziringo igarobidean, N-1 errepidearen egungo zeharbidea etorkizunean birmoldatzea; Oiartzungo haranean sakabanatutako industri ezarpenak Lanbarrengaina eta Zerradiberri zona berrietara lekualdatzea; Iturriotzen jadanik indarrean dagoen hirigintza-antolamendua bultzatzea eta Gurutze eta Ergoien auzoetako hiri-zeharbideak hobetzea, eta bi auzo horietan eta Karrikan espazio publikoak sortzea.

Jendaurrean egondako bi izapidetzetan Aurrerapideari 86 iradokizun aurkeztuak izan ziren eta hasierako onarpenari 94 alegazio, guztiak espedientearen erantzunda gelditu direlarik.

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Oiartzun en sesión de día 18 de febrero de 2008, con el quórum de la mayoría absoluta del número legal de miembros que componen la Corporación, adoptó el acuerdo cuyo contenido a continuación se publica:

«Aprobación definitiva del documento de revisión de las Normas Subsidiarias de Oiartzun.

El Ayuntamiento de Oiartzun acordó en fecha octubre de 2003 iniciar el expediente de contratación para las labores de redacción del documento de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, que databa de 1991. En la tramitación municipal, se aprueba el avance en sesión plenaria de 29/09/05, la aprobación inicial en fecha 27/07/06 y la provisional en sesión plenaria de 04/12/06.

El documento de revisión en su aspecto propositivo plantea el mantenimiento de la estructura básica general del municipio, constituida por la presencia de los ocho núcleos urbanos tradicionales, Elizalde, Altzibar, Iturriotz, Ugaldetxo, Arragua, Gurutze, Ergoien y Karrika, y de las zonas de actividad económica de Ugaldetxo, Lintzirin y Lanbarren en el noroeste del municipio. Dentro de ese marco referencial el modelo general de ocupación territorial planteado en las Normas se fundamenta en la localización de la mayor parte de los nuevos desarrollos residenciales a lo largo del eje central del valle, siguiendo la secuencia de los núcleos urbanos de Arragua, Ugaldetxo, Iturriotz y Altzibar. Las intervenciones residenciales más significativas que se plantean son: Arragua con más de 600 nuevas viviendas, Ugaldetxo con unas 662 nuevas viviendas, Iturriotz con 150 y Altzibar con unas 300 nuevas viviendas. Complementariamente, se contempla el traslado de los campos de fútbol desde Ugaldetxo a Iturriotz, creando entre Altzibar e Iturriotz un nuevo complejo deportivo municipal. Se completa el modelo con la propuesta de creación de un futuro Parque de Nuevas Actividades Dotacionales en la parte alta del barrio de Arragua, en el territorio que se extiende desde la Ertzaintza hasta Arizabalo.

Una vez descartada la alternativa de concentrar los nuevos desarrollos sobre el núcleo de Elizalde, por no disponer de una posibilidad clara de una ronda de descongestión viaria por el sur y por sus dificultades topográficas, el documento defiende el modelo porque entiende la opción urbanística elegida como preferible a trasladar hacia el territorio del término municipal de Oiartzun el modelo de ocupación extensivo del suelo adoptado recientemente por Erreterria para su crecimiento urbanístico en la zona de colindancia de ambos municipios a lo largo del cordal de Agustinas a Zamalvide.

Con un escenario de desarrollo de ocho años, el resto de operaciones de escala general más significativas propuestas son las siguientes: Construcción del Kulturetxe en Elizalde y reordenación de la zona alta de Learre y la variante; previsión de la variante sur de Ugaldetxo, de las nuevas estaciones de Euskotren y Renfe y de la futura conversión de la actual travesía de la N-1 a su paso por Lintzirin; traslado del conjunto de las implantaciones industriales dispersas en el valle a las nuevas zonas de Lanbarrengaina y Zerradiberri; impulsión de la nueva ordenación urbanística ya vigente en Iturriotz y mejoras en las travesías urbanas de los barrios de Gurutze y Ergoien, y creación de nuevos espacios públicos en estos dos barrios y en Karrika.

Durante las dos fases de exposición pública propias de la tramitación son presentadas un total de 86 escritos de sugerencias al Avance y 94 alegaciones a la aprobación inicial, habiendo quedado todas ellas informadas en el expediente.

Beste Administrazioek aspektu sektorialetan eginiko txostenei buruz, honakoa azpimarratu daiteke:

2006ko martxoaren 21ean Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, kontsultarako izaeraz, ingurugiro gaiei buruz errebisioaren Aurrerapen Dokumentuari alde aurretik egiten duen txostenean, proposamena egokia dela deritzo, Zerradiko industrigunea handitzen den eremua izan ezik, ez baita ikusten nahikoa justifikazioa duenik, eta berau birkontsideratzea proposatzen baita.

Gipuzkoako Foru Diputazioko Bide Azpiegituretako Departamentuak bere aldetik, 2006ko abuztuaren 23an zera informatzen du, Arau Subsidiarioen Errebisioa onartzeko eragozpenik ez dagoela hainbat ñabardurekin, horietatik nagusiena Ugaldetxoko hegoaldeko saihesbidea deitzen dena izanik, GI-2132 eta GI-3631 errepideak lotzen dituen. Bere funtzionamendua eztabaidagarria kontsideratzen da, eta argitzen du departamentuaren gaur egungo aurreikuspenetan ez dela sartzen.

Gipuzkoako Foru Diputazioko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak, 2006ko irailaren 13ko aurretiko txostenean, ingurumen inpaktuaren gaineko baterako ebaluazioa buruzko azterketa, modu garrantzitsu batean, osatu behar dela adierazten du. Izan ere, bere hitzetan, osatugabea dago, eta informazio osagarriarekin zerranda bat gehitzen du, azterketak jaso beharko lukeena. Azkenik, etxebizitzarako erabilerei buruz, Donostialdeko PTPren Aurrerapidean udalerrri honentzat aurreikusten zen etxebizitza parke berriaren dimentsionamendutik abiatuta, etxebizitza kopurua beherantz birkontsideratzea proposatzen du.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Departamentuko Landare eta Itsasertzaren Zuzendaritzak, 2007ko otsailaren 15ean egindako txostenean, instalazio berriko abeltzaintzako ustiapenerako derrigorrez aplikatu beharreko arautegiari buruzko kontsiderazio bat egiten du -izaera loteslea duena- eta gomendio batzuk ere egiten ditu honako gaiei buruz: Urbanizaezina den lurzoruaren zonifikazioa, erabilera eta eraikitze erregimena, nekazal zoruaren okupazioa eta Arraguako Dotazioetarako Parkeak nekazal jardueran izango dituen afekzioak eta landa lurtean aisialdirako eremua sortzea.

Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamentuko ingurumen inpaktuari buruzko 2007ko otsailaren 15eko behin betiko txostena, behin behingoz onartzeko zegoen dokumentuaren aurrean, ondoren laburtzen diren kontsiderazioak aipatuz egin zen: Lurralde Antolamenduko Irizpideak ezarritakora egokitu gabe egiten da lurzoru urbanizaezinenaren zonifikazioa; hainbat eremuetako bakarkako ikerketa ez da nahikoa, izan ere ez du barneratzen beste jarduketak duten eragina; behin betiko onarpeneko dokumentuak hainbat determinazio sartu beharko lituzke, horien artean azpimarratu daiteke etxebizitza kopurua beherantz egokitzeko aholkua. Txostena bera berregitea edo ezabatzea justifikatuko lukeen adinako eraginik ez du identifikatzen txostenak, baina alternatiben azterketa bat egin ez denez, -aurretiazko txostenak proposatzen zuen moduan- ez da zuritua geratzen ez eta nahikoa neurtua planteatutako garapena ote den egokiena ingurumen ikuspegitik, bai garapen berrien dimentsioari dagokionez eta baita ere euren kokapenari dagokionez.

Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2007ko otsailaren 26an, behin betiko onarpenari buruzko alde aurretiko txostena egin zuen. Bertan zortzi departamentuetatik jasotako txostenak barneratzen dira honako departamentuetakoak, Urak, Biodibertsitatea, Ingurumena, Herrizaingoa, Kultura,

Respecto de los informes de otras Administraciones en los aspectos sectoriales, es de destacar lo siguiente:

En el informe previo que, con carácter consultivo respecto de los aspectos ambientales, emite la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en fecha 21 de marzo de 2006 al documento de Avance de la revisión, se estima correcta la propuesta a excepción del ámbito de ampliación del polígono industrial de Zerradi del que se considera no hallarse justificado y para el que se propone su reconsideración.

El Departamento para las Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por su lado, informa en fecha 23 de agosto de 2006 que no existe inconveniente para la aprobación de la revisión de las Normas Subsidiarias con diversas matizaciones la más importante de las cuales se refiere a la que denomina variante sur de Ugaldetxo, de conexión entre las carreteras GI-2132 y GI-3631, cuya funcionalidad considera discutible y respecto de la que aclara no encontrarse entre las previsiones actuales del Departamento.

El Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en Informe Preliminar de 13 de setiembre de 2006, establece la necesidad de que se complete de manera importante el estudio para la declaración conjunta de impacto ambiental por encontrarlo, en sus propios términos, muy incompleto, e incluye un listado de información complementaria que el estudio habrá de recoger. Finalmente, respecto de los usos residenciales, partiendo del dimensionamiento del nuevo parque de vivienda que se contempló para el municipio en el Avance del PTP de Donostialdea, propone la reconsideración del número de viviendas a la baja.

La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, en informe de fecha 15 de febrero de 2007, efectúa una consideración de carácter vinculante relativa a la normativa de obligada aplicación para las explotaciones ganaderas de nueva instalación, y una serie de recomendaciones en torno a la zonificación del suelo no urbanizable y su régimen de edificación y usos, la ocupación de suelo agrario y afecciones a la actividad agraria del Parque Dotacional de Arragua, y la creación de áreas recreativas rurales.

Por su parte, el informe definitivo de impacto ambiental del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco de fecha 15 de febrero de 2007 a la vista del documento sometido a aprobación provisional, se emite vertiendo una serie de consideraciones que se resumen a continuación: La zonificación del suelo no urbanizable sigue sin ajustarse a lo establecido en las Directrices de Ordenación del Territorio; el análisis individualizado de determinadas áreas es insuficiente por cuanto no incorpora la incidencia de otras actuaciones; el documento de aprobación definitiva debiera incorporar una serie de determinaciones entre las que cabe destacar la recomendación de ajustar a la baja el número de viviendas. El informe no identifica impactos cuya magnitud justifique su redefinición o supresión; sin embargo, al no haberse realizado un estudio de alternativas como proponía el informe preliminar, no queda justificado ni suficientemente evaluado si la alternativa de desarrollo planteada tanto en cuanto a la dimensión de los nuevos desarrollos como a la localización de los mismos es la más adecuada desde el punto de vista ambiental.

La Comisión de Ordenación del Territorio emite informe previo a la aprobación definitiva en fecha 26 de febrero de 2007 en el que, recogiendo en ocho anexos los informes emitidos por los departamentos de Aguas, Biodiversidad, Medio Ambiente, Interior, Cultura, Agricultura, Vivienda y el informe definitivo

Nekazaritza, Etxebizitza eta Ingurumen inpaktuaren behin betiko txostena, eta lotesleak diren hainbat zuzenketa ezartzen dira. Aipatu aldaketa edota egokitzapenak –lehendik adierazitako sektoreetako txostenetatik datozenak- sartuta testua idatzi ondoren, 2007ko martxoaren 8ko plenoak onartu zuen eta Lurraldearen Antolamendurako Batzordera bidaltzea erabaki zuen, azken honek txosten berria idatz zezan. Dokumentua 2007ko martxoaren 29an onartu zen, aldeko zentzuan. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren txostenean xedatutakoaren arabera, ARR-5 eremua suspentsioan geratuko litzateke, Larrezabaletako hondakindegia zaharraren lurzorua kalitatearen baldintzak egiaztatu bitartean.

Azkenik, 2007ko apirilaren 19ko osoko bilkuran dokumentuak behin betirako onarpena jaso zuen, Arraguako Dotaziotako Parkea –ARR.5 H.J.B.– ezik, 2007ko maiatzaren 11ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eman zelarik. Akordioak errekurritzeko emandako epean bide administratiboan zazpi helegite tarteratzen dira eta bide judizialean hiru.

Autonomia Erkidegoko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak udalei bere planeamendu orokorra onartzeko ematen dien eskumen berria erabili nahi duten herriei baldintza bezala jartzen dien derrigorrezko organoa, Plangintzako Aholku Kontseilua, ez eratu eta martxan ez jartzeagatik, eta ondorioz, legez ezarritako prozedura ez bete izanagatik, akordioa deuseza deklaratu eskatzen zuen berraztertze errekurtsioa, zerbitzu juridikoen txostena eskuratu ondoren, argudio horretan ontzat eman zen eta 2007ko uztailaren 10eko osoko bilkurak honako akordioa hartu zuen:

Lehenengoa. Erkidegoko 2/2006 Lurzoru eta hirigintzari buruzko Legearen 109 eta 110 artikuluek arautzen dutena betetzeko Planeamenduko Aholku-Kontseilua derrigorrezkotzat jotzea Oiarzungo Arau Subsidiarioen errebisioaren tramitazioan eta, ondorioz, 2007ko apirilaren 19an udalbatzak emandako behin betirako onarpena, lege horren aurkakoa denez, deuseza aldarrikatzea.

Bigarrena. Agenda 21 eta sei auzo elkartek tartekaturiko errekurtsioa Aholku-Kontseiluaren gaian onartzearen ondorioz, Arau Subsidiarioen dokumentuari behin betirako onarpena eman aurreko unera atzera itzultzea, Planeamenduko Aholku-Kontseiluak bere txostena eman dezan.

Aipatu ebazpena 2007ko uztailaren 20ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Ondoren Udal Osoak Oiarzungo Plangintzarako Aholku Kontseilua eratzea eta martxan jartzea erabaki zuen, irailaren 26an behin betikoz onartu ziren bere estatutuak eta dagokion izapidetzak egin ziren. Organo hau 9 alditan bildu da urriaren 23tik hasi eta abenduaren 18 bitartean eta egindako bilkuretatik ateratako ondorioak jarraian jasotzen den txostenean laburbildu dira:

«Ondorioak:

Arauen errebisiorako abiapuntua Oiarzungo egoera hobetzea, dituen arazoak konpontzea eta oiartzuarren beharrei aurre egitea izan beharko litzateke. Ideia horretatik abiatuta, idatzita dauden Arauen dokumentua oso osorik bertan behera utzi eta azterketa berri baten ondorioz Arauak berrantolatzea jotzen da aukerarik zuzenena. Era berean, lan horretan Kontseiluko kideek protagonismo berezia izatea eskatzen dute, herritarren benetako partaidetza bultzatu dadin.

de impacto ambiental, establece de manera vinculante determinadas correcciones. Redactado el texto que incluye las citadas modificaciones y/o adaptaciones derivadas de los informes sectoriales antedichos, el Pleno de 8 de marzo de 2007 lo aprueba y acuerda su remisión al COT para que sea emitido nuevo informe, documento que es aprobado con fecha 29 de marzo del 2007 en sentido favorable. En virtud de lo dispuesto en el informe del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, el ámbito ARR-5 quedará en suspenso en tanto se verifiquen las condiciones de calidad del suelo del antiguo vertedero de Larrezabaleta.

Finalmente, en sesión plenaria de 19 de abril de 2007 se procedió a la aprobación definitiva del documento, quedando en suspenso el ámbito A.I.U. ARR-5 Parque Dotacional de Arragua, y produciéndose su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 11 de mayo de 2007. En el plazo concedido al efecto se interponen siete recursos en vía administrativa y tres en vía jurisdiccional.

El planteamiento de uno de los recursos de reposición en cuanto a la nulidad del acuerdo adoptado por haberse prescindido del procedimiento legalmente establecido, por haberse ignorado total y absolutamente la intervención del Consejo Asesor de Planeamiento, órgano obligado para las administraciones municipales que hagan uso de la facultad de aprobar definitivamente el planeamiento general en virtud de la Ley 2/2006, de 30 de junio del Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma, es informado por los servicios jurídicos y, en sesión plenaria de 10 de julio de 2007 se adopta el siguiente acuerdo:

Primero. A fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en los artículos 109 y 110 de la Ley 2/2006 sobre el Suelo y Urbanismo, considerar obligatorio el Consejo Asesor en la tramitación de la revisión de Normas Subsidiarias de Oiarzungo y, en consecuencia, declarar nulo el acuerdo de aprobación definitiva otorgado por el Corporación el 19 de abril de 2007, dado que es contrario a dicha ley.

Segundo. Como consecuencia de estimar el recurso interpuesto por Agenda 21 y seis asociaciones de vecinos en relación al Consejo-Asesor, volver al momento anterior a la aprobación definitiva del documento de revisión de las Normas Subsidiarias, a fin de que el Consejo Asesor de Planeamiento emita su informe.

El citado acuerdo es publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 20 de julio de 2007.

Seguidamente, el Pleno municipal acordó la creación y puesta en marcha del Consejo Asesor de Planeamiento de Oiarzungo, aprobando sus Estatutos el 26 de setiembre y sometiendo los citados acuerdos a la tramitación reglamentaria. Y tras 9 sesiones, celebradas entre el 23 de octubre y el 18 de diciembre, el citado Consejo ha emitido informe del siguiente tenor:

«Conclusiones:

La revisión de las Normas debería tener como punto de partida mejorar la situación de Oiarzungo, arreglar los problemas que padece y hacer frente a las necesidades de los oiartzuarras. Desde este punto de vista se considera que la opción más conveniente sería dejar en suspenso el documento completo de las Normas tal y como están redactadas y reorganizar la normas ajustadas a un nuevo estudio. Asimismo, los miembros del Consejo solicitan tener un protagonismo particular en esa labor, a fin de promover una verdadera participación de los ciudadanos.

Hala ere, gaiez gai honako azterketa egin liteke:

Lehena. Etxebizitza.

Oiartzuarren benetako beharrari erantzun behar zaio.

A) Kopurua: Oiartzuarren demanda osatzeko behar diren etxebizitzentzako lurra kalifikatuta, hau da esponjamendurik gabe (beharrezkoak direnak baino gehiago sailkatzea).

B) Mota: Beharrari erantzutea babesturiko etxebizitzak egitea suposatzen du, alokairuan eta sozialak. Libreak egitea azpiegiturak eta ekipamenduak lortzearekin lotuta dago eta gai horretan udalak ikusi beharko du.

C) Kokapena: Honek badu ereduarekin zerikusirik. Ez da ikusten Arragua eta Ugaldetxo bezalako auzo intentsiborik egin behar denik Oiartzunen. Oreretako eredutzat jotzen da hori eta Oiartzungo bailaran arrotza egiten da. Oreka da gehien aipatu den hitza arlo honetan. Elizalde, herri gune bezala, auzoak, Oiartzungo bailaran okupazio garapen eredu hartzen direnak, eta beheko bailarako (Arragua-Ugaldetxo-Altzibar) garapen berrietarako ahalmena modu orekatuan uztartu behar direla azpimarratu da behin eta berrero. Auzo-bizitza mantentzea helburutzat jotzen da.

Ondorio bezala, gehiengo batek Ugaldetxoren garapen berriak atzera bota eta berraztertzea gomendatu du. Horrekin batera kontuan jarri dira beste zenbait eremu: Elizalden Urkabekoak gune babestuan sartzen direlako eta ez delako ikusten mendi alderako zabaltze hori. Gainerako auzoetan, Gurutze eta Ergoien bereziki, ez da ikusten zergatik planteatzen diren etxebizitza librerik eta ez babesturik. Eta Altzibarren iritzi orokorra da etxebizitza gehiagi ere egiten direla.

Bukatzeko, ez da egokia ikusten Elizalden ezer ere ez egi-tea, aztertu gabe dagoela ulertzen da eta dituen arazoak bere horretan mantendu direla (Beheko plazako eta hezkuntza zen-troetako trafikoa arazoa, etxebizitza sozialen beharra eta abar).

Bigarrena. Lur industrial.

Idatzitako dokumentuak ez du demanda berria identifikatzen eta garapen berriak herri gunean dauden enpresen lekualdaketa justifikatzen ditu. Kontua da ez enpresa horiekin ez eta eremu berrien jabeekin ez dagoela hitzarmen efektiborik. Hutsune honen adibiderik nabarmenena Zerradikoa da ez baitago lotuta garapen berria zaharrarekin eta udalak galdu du-lako dagoeneko lur horien kudeaketa zuzentzeko aukera. Lanbarrengo kasuan berriz, Aiako Harriak eta Jaizkibelen arteko pasagune ekologikoa hautsiko litzateke eremua gauzatu z-gero.

Ondorioz, ez da ikusten garapen berri horien beharra eta Zerradikoa, gainera, bailara horren ingurumen eta paisaiarekiko oso erasotzailea ikusten da. Horregatik, Lanbarren justifikazio urbanistikoa izan arte bertan behera uztea proposatzen da eta Zerradi ezabatzea eskatzen da.

Hirugarrena. Ekipamenduak.

Oiartzunen biztanleria lurraldean hedadura zabalarekin sakabanatua egotea ekipamenduak ere banatuak egon behar direla suposatzen du. Zenbait auzoetan ekipamenduak osatzeko ahallegina egin behar dira. Orokorrean aipatu da frontoi itxien beharra, kirol eta auzo mailako jarduera eta ikuskizunen gune bezala. Bestalde, herriaren hazkundeak beste ekipamenduetan izan lezaken ondorioa aztertu beharra dagoela iristen zaio, adibide bezala, ambulatorioa. Zerbitzuen deszentralizazioa aipatzen den bezala, zenbait ekipamendu, kirolekako adibide, zentralidade bat eskatzen duela dirudi.

A pesar de ello, se ha realizado un análisis por temas:

Primero. Vivienda.

Hay que atender la verdadera demanda de los oiartzuarras.

A) Numero: Calificando terreno para viviendas a fin de cumplir la demanda de los oiartzuarras, sin esponjamiento (calificar más de los necesarios).

B) Tipo: Responder a las necesidades supone construir viviendas protegidas, en alquiler y sociales. La construcción de viviendas libres está unida al logro de infraestructuras y equipamientos y el ayuntamiento deberá decidir en este tema.

C) Emplazamiento: Esto tiene que ver con el modelo. No se ve que se tenga que hacer barrios intensivos como Arragua y Ugaldetxo en Oiartzun. Dicho modelo pertenece a Oreta y resulta extraño en el valle de Oiartzun. La palabra que más se ha mencionado en este apartado ha sido el equilibrio. Se ha subrayado una y otra vez que de deberá combinar, de modo equilibrado, Elizalde, como centro urbano, los barrios, que se toman como modelo de desarrollo para la ocupación en el valle de Oiartzun, y la posibilidad de nuevos desarrollos en la zona baja del valle (Arragua-Ugaldetxo-Altzibar). El mantenimiento de la vida de barrio se considera como una finalidad.

En consecuencia, una mayoría ha recomendado suspender los nuevos desarrollos de Ugaldetxo y reestudiarlos. Junto a ello se han cuestionado otras zonas: En Elizalde las de Urkabe porque se incluyen en la zona protegida y porque no se ve dicha expansión hacia el monte. En el resto de barrios, especialmente en Gurutze y Ergoien, no se ve porque se plantean viviendas libres y no protegidas. Y en cuanto a Altzibar la opinión general es que se construyen demasiadas viviendas.

Para finalizar, no se ve conveniente no hacer nada en Elizalde, se entiende que no se ha estudiado y que los problemas que padece se han mantenido (problemas de tráfico en Beheko plaza y en los centros escolares, necesidad de viviendas sociales, etc).

Segundo. Suelo industrial.

El documento redactado no identifica la nueva demanda y justifica los nuevos desarrollos en base a los traslados de las empresas situadas en los centros urbanos. El problema es que no existen convenios efectivos ni con dichas empresas ni con los propietarios de las nuevas zonas. El ejemplo más evidente de esta carencia es Zerradi, puesto que no se une el nuevo desarrollo con el antiguo y porque el Ayuntamiento ha perdido la posibilidad de gestionar dichos terrenos. En el caso de Lanbarren, si se lleva a cabo el área se destruiría el paso ecológico entre Aiako Harria y Jaizkibel.

En consecuencia, no se ve la necesidad de estos nuevos desarrollos, y el de Zerradi, además, se considera muy invasivo con respecto al medio ambiente y el paisaje. Por ello, se propone dejar en suspenso Lanbarren hasta que exista una justificación urbanística y se solicita suprimir Zerradi.

Tercero. Equipamientos.

El hecho de que la población de Oiartzun esté diseminada en una gran extensión territorial supone que también los equipamientos estén repartidos. En algunos barrios hay que hacer un esfuerzo para completar los equipamientos. En general se ha mencionado la necesidad de frontones cubiertos, como centros de actividad y espectáculos a nivel de barrio. Por otro lado, se considera que hay que estudiar las posibles consecuencias del aumento de población en el resto de equipamientos, por ejemplo el ambulatorio. Al igual que se habla de descentralización de servicios, parece que algunos equipamientos, los deportivos por ejemplo, piden la centralidad.

Laugarrena. Azpiegiturak.

Arreta gehien bideen sareak bereganatzen du eta idatzitako Arauek ez dutela behar bezalako azterketarik egiten iristen zaio. Oiartzundik ateratzeko bideen azterketa bai baina barneko komunikazioak dituen gabeziak detektatzeko saiakerarik ere ez dela egin esaten da.

Kanpoko harremani dagokionez, ez da ulertzen Arragua etxez betetzea errepideak duen arazo larriari inolako konponbiderik proposatu gabe. Arraguako hau da larrien bezala ikusten den gaia, batez ere Donostiako bigarren saihebidarekin trafikoa areagotu egingo delako egoera jasanezina bihurtuz eta ezin da itxaron gaia konponezina izan arte soluziobide bat bilatzeko.

Barneko sareari dagokionez, trafikoko datuak ikusita, bariante batzuk ez dira egoki ikusten (nabarmenki Ugaldetxokoa). Sare honen gabeziatan (auzoen arteko loturak) eta lurraldeak eragiten dituen zailtasunetan (maldak eta aldapak) sakontzea proposatzen da.

Arlo honetan garrantzizko aspektua, bide eta errepide inguruko erabaki guztietan eragina izan behar duena, zera da mugikortasuna kolektibo guztiei begira planteatzea.

Bideak eta trafikoa garraio motarekin harreman zuzena dutenez, erabaki guztien gainetik garraio publikoaren aldeko apustua gauzatzea egongo litzateke, ikuspuntu horretatik herria antolatuz, ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzearekin batera etorri litekeelako azpiegiturretan irtenbide logikoena.

Bostgarrena. Lur ez urbanizagarria.

Arauen dokumentuan argi-ilunak ikusten dira eta arau zuzen batzuk edukitzea beharrezkoa ikusten da. Orokorrean nekazal eta abeltzainen arloen beharrak ez direla neurtu eta kontuan izan iristen zaio. Naturaren tratamenduari buruz ere hutsuneak nabarmenak dira.

Orokorrean oraindik garatu beharreko gaia dela antzematen da, lehen sektorea babesteko neurriak hartu, bailaran hirigintzako presio gehien jasaten duen erdigunearen tratamendu egoki bat bilatu, 115. artikuluaq baserria berritu, handitzeko edota eraikin berria egiteko ematen dituen aukera desberdinei muga jarri eta artikulua hori zein eremuetan den aplikagarri argitu. Gai guzti hauek hemendik aurrera jorratzen jarraitzeko proposamena egiten da».

Bere aldetik, Planeamendu Batzordeak 2008ko urtarrilaren 30eko bilkuran, 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko legearen 109,4 artikuluaq ezarritakoa betetzeko, Aholku Kontseiluak egindako proposamenak zertan eta zergatik ez dituen jarraitzen justifikatzeari ekin zion modu honetan:

— Dokumentu guztia bertan behera utzi eta berritik idazten hasteko gomendioa ez da aintzat hartuko segurtasun juridikoaren arrazoiak direla medio eta Udala erantzukizun egoeran sar litekeelako, azken batean Udala bera izan zelako, planeamendu orokorra bere udalbatzak onartu nahi izatekotan, derrigorrez eratu beharreko Aholku Kontseilua eratu gabe utzi zuena. Gainera, berridazketa prozesua urtetan luza liteke.

— ALT-3 eremua bertan behera uzteko gomendioa ez da aintzat hartuko Altzibarko gainerako eremuen garapenerako saihebidere berria koherentea kontsideratzen delako eta errepide hori apatu ALT-3 eremuarekin lotura duelako.

Cuarto. Infraestructuras.

La mayor parte de la atención se centra en la red de viales, y se considera que los Normas no realizan un estudio suficiente al respecto. Sí que se realiza un estudio de los viales para salir de Oiartzun, pero no se realiza ningún intento para detectar las deficiencias que tienen las comunicaciones internas.

En cuanto a las relaciones externas, no se entiende el hecho de llenar de viviendas Arragua sin proponer ningún tipo de solución al grave problema que tiene la carretera. Este es el problema más grave que se ve para Arragua, sobre todo porque con el segundo cinturón de Donostia aumentará el tráfico llegando a una situación insostenible y no se puede esperar a que el problema sea irreparable para buscar una solución.

En relación a la red interna, vistos los datos de tráfico, algunas variantes no se consideran adecuadas (en especial la de Ugaldetxo). Se propone profundizar en las deficiencias de esta red (enlaces entre barrios) y en las dificultades que provoca el territorio (cuestas y pendientes).

El aspecto más importante en esta materia, que debe tener incidencia en todas las decisiones que se tomen en relación a viales y carreteras, es plantear la movilidad teniendo en cuenta todos los colectivos.

Dado que los viales y el tráfico tienen relación directa con el modo de transporte, por encima de todas las decisiones debe primar la apuesta a favor del transporte público, dado que ordenando la localidad desde ese punto de vista y junto a la reducción del uso del vehículo privado se llegaría a la solución más lógica en el tema de las infraestructuras.

Quinto. Suelo no urbanizable.

